




**IKASBIDE
KULTUR
ELKARTEAN**

Isabel II, Hirib. 15 behea
Tel. - Fax 943 457 107
20011 DONOSTIA
www.ikasbide-kultur-elkartea.eus

EUSKAL LITERATURAZ GOZA!



Epizentroa

Nerea Loiola Pikaza 2021

«Hasiera berri batek, benetan berria denean, krisia sortzen du. Benetako edozein aldaketak beldurra sortzen du. Beldurrik ez baduzu, ez da benetako aldaketa». Gure buruan errotzen doazen erabakien eta erabaki horiek benetan gauzatzearen artean dagoen amildegian kokatzen dira sarri ipuin hauetako pertsonaiak. Erabakitakoa adierazi, ekin edo norbere burua aldatzearen borondatearen eta borondate hori gauzatzeak dakarren bertigoaren ataka zailean. Zazpi ipuinez osatua da Nerea Loiolaren lehen narrazio bilduma hau. Gai ugari ukitzen ditu: maitasuna, desioa, sexua, gurasotasuna, zorientasunaren eraikuntza, nahiak-ardurak-ezinak... Estilo fina eta erakarmen-indar handiko istorioak, beti giza harremanen ardatzaren jiran, xehetasunari eta keinuari adi. Liburuko kontakizunetako batek ematen dio izena: Epizentroa. «Batuetan hain gaude geure istorioan murgilduta, ez gara konturatzen beste pertsona baten istorioan bigarren mailako aktoreak besterik ez garela. Edo estrak. Edo dekoratua». «Hezur-mamizkoa baino gehiago kristal-likidozkoa sentitzen da. Ezin damugitu. Mugitzen bada hautsi egingo da. Eta hausten bada, noizbait pertsona fresko eta duin bat gorde zuen edukiontzia erarrasto mingarriak baino ez dira belar gainean geratuko».

Nerea Loiola Pikaza (Deba, Gipuzkoa, 1985eko ekainaren 6a) irakaslea eta euskal idazlea da. Deban jaio zen 1985ean. Ingeniaritza Mekanikoan graduatu zen eta lanbidez Bigarren Hezkuntzako Matematikako irakaslea da. Irakaslea eta ama bere esanetan, amatasunak garrantzi handia baitu berarentzat. Idazle bezala haur eta gazte literaturan murgildu da eta hainbat liburu argitaratu ditu. Beste alor batzuk jorratzen ere aritu da: iritzi zutabeak Urola Kostako Hitzan eta helduentzako ipuinak batez ere. Epizentroa da egindako lan horren aurreneko emaitza. Literatura liburuez gain, komikien munduan ere saiakera batzuk egin ditu. Irabazi arte ETB1eko teleaileko pertsonaien unibertsoan oinarrituta, sakelakoan irakurtzeko euskarazko lehen komiki interaktiboa sortu du Aitziber Alonso ilustratzailearekin batera: Irabazi arte: iraganeko mamua. Komikia gaztetxoei zuzenduta dago, eta sakelakoan aplikazioa deskargatu ondoren erabiltzaileei interakzioarako hainbat aukera eskainiko dizkie: protagonistek istorioan entzuten duten musika entzun, pertsonaien edo gertakarien inguruko informazioan sakondu edota istorioaren garapenaren inguruko galderei erantzun. Nerea Loiolak, Jon Aranguren ilustratzailearekin batera, argitaratutako laugarren liburua Naian album ilustratua da. Gaztetxoei zuzenduta dago eta haurrengana helarazten diren desberdintasunari buruzko ikuspegiak lantzen ditu.

2022/2023

Urriaren 24an 19:00etatik-20:00etara

IKASBIDE KULTUR ELKARTEAN

Edu Zabalak zuzendua

